

Sonia Gonzalez

LABEKO KOMUNIKAZIO IDAZKARIA

## Benetako krisia, langileona

**K**risi berbak komunikabide guztiak betetzen ditu. Egunkariak azaletan agertzen dute, telebistetako programa guztietan aipatzen da, irratietan analisi “sakonak” egiten dituzte... Burtsei segimendu burutsua egin, langileok aspalditik krisi benetan larria pairatzen ari garela ahazturik.

Gobernuek, estatuetakoek zein Baskongadetakoak edo Nafarroakoak, egin duten lehenbiziko gauza erantzukizuna euren gaindik oso urrun botatzea izan da: hidrokarburuak, sub-prime hipotekak, euriborra... Eta saltzen duten kontsolamendu bakarra beste batzuk baino hobeto gaude-lako irudia da. Hasiera batean Ameriketako Estatu Batuetako krisialdia izan omen zena, behin gerturatuta, bankari gutxi batzuen diru-gosea eta ardura falta omen da. Edozer eurek zuzenean sostengatzen duten sistematik berak sortu duen arazoa dela onartu baino lehen.

Hala ere, aipatutako gobernu eta gobernu txiki hauek guztiek bat egin dute mundu zabalean praktikan ipini diren neurriekin: bai hipotekekin langileok itotzen gaituzten bankuen “erreskaterako”, bai azpiegiturretan milioikako inbertsioak egiteko enpresen mesederako, bai enpresariei laguntzak emateko... Zerbitzu sozialetan gastatzeko ez omen



INIGO AZKONA

dagoen dirua orain ezerezetik sortu eta mugimenduan jarri da, hori bai, interes pribatuak sustatzeko eta laguntzeko.

Langileoi, bien bitartean, “gerrikoa estutu behar dugulako” mezu bakarra helarazten digute, aspalditik nahiko estu ez bage-neuka legez. Azken hamabost urteotan enpresen irabaziek komunikabideetako orriak eta orriak bete izan dituzte, aurpegi irribarretsuak elkarri zorionak ematen. Honela, enpresen irabaziak %70 baino gehiago hazi diren bitartean, langileon soldadak %4 murriztu dira. Eta orain irabazien “pribatizazio” basati horren ostean euren galerak “sozializatu” nahi al dituzte? Jakin badakigu instituzioen laguntza horiek guztiek jasoko dituzten berberak aprobetxatu nahi izango dutela langileon baldintzak are gehiago kaskartzeko eta irabazien jaitsiera ñimiñoenaren aurrean kontratuak ez berritze-ko edota espedienteak zabaltzeko.

Errotiko aldaketa behar dugu, kapitalak inposatu duen ereduaren errotiko aldaketa ekonomiko eta soziala. Bide horretan aktibatu behar gara sindikalismoa eta beste-lako herri sektoreak, gaur egungo indar korrelazioari behingoz buelta eman diezaiogun. Hortxe dago koska, zabaltzen ari den ke guztiaren gainetik. ■



Hasiera batean AEBetako krisialdia izan omen zena, behin gerturatuta, bankari gutxi batzuen diru-gosea eta ardura falta omen da hemen



## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Bezala, kafearekin batera erosten ez dudan egunkaria irakurtzen ari nintzela,

atzeko mahaian jarrita zeuden biren solasaldian entzuna: Kuko Ziganda bota dute. Normala, iaiztik iragarrita zegoen, pazientzi handiaz jokatu dute berarekin. Ez du zertaz kezakerik. Camacho dakarte. Honek bai, honek fundamentua ekarriko du aldagelara. Lagun bat inguratu zait eta alboan nuen nire *Berria* hartu dit. Ezagutzen huan Iratzeder? Ez pertsonalki, poeta pixka bat, ez larregi. Eta Gotzon Garate? Erantzuten hasi orduko, atzeko mahaiko batek: Madrilgo Athleticokoa hil

## Ia egunero

dio lagunak, hau ez zen futbolaria. Horretan utzi dugu. Tabernariak, euskalduna bera, keinu konplizea egin digu. Biak bertakoak dira, ni jaiotzerako hemen bizi zirenak, esan digu geroago. Hauek ez dute Arestiren aitaren etxearen berri, baina ez daude euskararen aurka, ni beren bilobek karatea ikas dezatenaren aurka ez nagoen bezalaxe. Izan ere, irekiak gara guztiok ere, demokratak oso eta bestearen munduan sartzea ez dugu maite, ez baldin badoa gure kaltetan behintzat. ■

da, Eibarren jokaturakoa? Adarra jotzeko goizegi zela edo, laguna eta biok elkarri begiratu eta mutu gelditu gara. Ez, esan